

**AKTA X. LAUGARREN ETAPA****Aurrez-aurreko elkarrizketa eta merituen ebaluaketa. Behin-behineko  
emaitzak.**

**Gaia:** Enpresa arduradunaren lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Argentina – Mercosur Ordezkaritzan lan egiteko. Aurrez-aurreko elkarrizketa eta merituen ebaluaketa.

**Prozesua**

Helburua da Euskadiren Argentina – Mercosur Ordezkaritzako Enpresa Teknikari posturako lan-kontratu bat egitea.

Aukeraketa-prozesuak lau etapa izan ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta hautagaiak aukeratzea
2. Idatzizko proba
3. Psikoteknikoa
4. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa

2., 3. eta 4. etapak deialdiaren oinarrietan (6.2 art.) azalduko bi ebaluaketa faseak dira: oposaketa –hiru ariketa ditu (idatzizko proba, psikoteknikoa eta elkarrizketa pertsonala)– eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, aurrez-aurreko elkarrizketan hautagaien lanpostuaren jarduerarako gaitasunak eta trebeziak baloratu dira. 30 puntuko nota jarri da gehienez, 20 puntu baino gutxiago lortzen dituztenak kanporatuz.

Merituen ebaluaketari dagokionean, deialdiaren oinarrien arabera, 40 puntu eman dira gehienez.

Elkarrizketa pertsonalak azaroak 12, 13 eta 15ean egin ziren Buenos Aireseko Euskadiren Ordezkaritzan; hori dela eta, epaimahaiaren kide batzuk Skype bidez hartu zuten parte elkarrizketan.

Instantzia honetan, DGV182 hautagaiak hautatze-prozesua jarraitzeari uko egin zion.

Elkarrizketan lorturiko emaitzak hurrengo hauek dira:

| HAUTAGAIA | GUZTIRA |
|-----------|---------|
| DGV140    | 26,33   |
| DGV169    | 26,00   |
| DGV157    | 20,00   |
| DGV167    | 17,33   |



Elkarriketak amaitu ondoren, eta merituak ebaluatuta, Epaimahaiak prozesuaren hiru etapetan GAI izan diren pertsonen behin-behineko lehentasun-ordena prestatu du, hiru faseen batuketaren puntuaketa altuena erreferentziatzat hartuz. Hala, Euskadiren Argentina – Mercosur Ordezkaritzako enpresa arduradunaren lanpostua betetzeko hautagaien azken zerrenda ondokoa da:

| Hautagaia | F. Idatzia | Elkarriketa | Merituak | Guztira      |
|-----------|------------|-------------|----------|--------------|
| DGV140    | 15,46      | 26,33       | 15,15    | <b>56,94</b> |
| DGV169    | 18,26      | 26,00       | 7,00     | <b>51,26</b> |
| DGV157    | 19,80      | 20,00       | 11,45    | <b>51,25</b> |

Erreklamazioak egiteko 10 egun naturaleko epea hasi da honela.

Buenos Aireseko Hiri Autonomoan, 2018ko azaroak 23an.

Sara Pagola Aizpiri  
Ordezcaria  
Euskadiren Ordezkaritza Argentina – Mercosur  
Epaimahai Kalifikatzailearen burua